



---

# EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EGOILIARREK 2017/2018 IKASTURTEAN JASO DUTEN PRESTAKUNTZAREN INGURUKO GOGOBETETASUN-INKESTA

## 2018KO UZTAILA

---

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

# Sarrera eta helburuak

---

- Dokumentu honetan, BAME, BAEE, BAPE, BAFE, BABE eta BAKE egoiliarrek Euskal Autonomia Erkidegoan izan duten prestakuntza-prozesuaren inguruan duten iritzia biltzen da. Duela hamar urte hasi eta urtero egiten du dokumentua Osasun Saileko Irakaskuntza eta Garapen Profesionaleko Zerbitzuak.
- Inkesta hamargarren aldiz egin denez, saiatu gara egiaztatzen aurreko urteetan aurkitu eta balioztatu den eskalaren egitura berresten den ala ez.
- Era berean, azken hamar urteetan (2009-2018) eskuratutako emaitzen eboluzioa eta konparazioak egin ahal izan dira.
- Osasun Saileko Irakaskuntza eta Garapen Profesionaleko Zerbitzuak zuzendu ditu inkestaren diseinua eta azterlana bera, eta Adimen Investigación enpresako lantalde teknikoaren laguntza izan du emaitzak aztertzeko.

---


## Laginare eta eskalaren berrikuspen metodologikoa

---

# Erantzun-tasa

- **Joera positiboari eutsi zaio, eta 2018. urteak izan du parte-hartze handiena. 2009. urtetik** –lehen inkesta egin zen urtea eta erantzun-mailarik baxuena izan zuena–, parte-hartzea % 83,2koa izatera heldu da; hau da, **29 portzentaje-puntu baino gehiago hazi da. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, parte-hartzea 2,4 puntu hobetu da.**

INKESTAKO ERANTZUNEN TASA (2009-2018)



# Erantzun-tasa

## INKESTAKO ERANTZUNEN TASA (2017-2018)

	Tasa de respuesta 2017	Tasa de respuesta 2018		DIF 2017-2018
Hospital de Basurto	79,9%	82,8%	↑	2,9%
Hospital de Cruces	79,5%	85,9%	↑	6,4%
Hospital Universitario de Donostia	82,1%	85,1%	↑	3,0%
Hospital de Galdakao-Usansolo	73,3%	76,4%	↑	3,1%
Hospital San Eloy	100,0%	100,0%	→	0,0%
Hospital Universitario de Araba	82,3%	87,7%	↑	5,4%
Instituto Oncológico	60,0%	100,0%	↑	40,0%
Red Salud Mental de Bizkaia	88,9%	89,5%	↑	0,6%
UNIDAD DOCENTE DE ENFERMERÍA DE SALUD MENTAL	90,0%	90,9%	↑	0,9%
UNIDAD DOCENTE DE ENFERMERÍA OBSTÉTRICO-GINECOLÓGICA	88,6%	88,4%	↓	-0,3%
UNIDAD DOCENTE DE MEDICINA DEL TRABAJO	77,8%	58,3%	↓	-19,4%
UNIDAD DOCENTE DE MEDICINA FAMILIAR Y COMUNITARIA DE ARABA	91,8%	82,9%	↓	-8,9%
UNIDAD DOCENTE DE MEDICINA FAMILIAR Y COMUNITARIA DE BIZKAIA	75,0%	78,2%	↑	3,2%
UNIDAD DOCENTE DE MEDICINA FAMILIAR Y COMUNITARIA DE GIPUZKOA	84,4%	78,8%	↓	-5,6%
UNIDAD DOCENTE DE MEDICINA PREVENTIVA Y SALUD PUBLICA DE EUSKADI	83,3%	100,0%	↑	16,7%
UDM GERIATRÍA FUNDACIÓN MATIA (ENF)	66,7%	100,0%	↑	33,3%
TOTAL	80,9%	83,2%	↑	2,4%

2017. eta 2018. urteen arteko aldea = 2018ko lagina - 2017ko lagina

# Laginaren adierazgarritasuna

---

- 2009. urtetik egiten den moduan, ezagutzen diren aldagaietan, hartutako laginaren eta populazio osoaren arteko egokitzapen-maila egiaztatuko da, inkesta populazio osoari zuzenduta baitago.
- Horretarako, berriz ere, ezagutzen diren aldagaien maiztasun-banaketa aztertuko da, bai populazio osoarena bai laginarena (irakaskuntza-unitatea edo ospitalea, espezialitatea, egoitza-aldiaren urtea). Era berean, beharrezkoa denean, hipotesi-proba egingo da.

# Laginaren adierazgarritasuna

## UNIBERTSO- ETA LAGIN-BANAKETAREN KONPARAZIOA, OSPITALEAREN ARABERA

- Aurreko urteetan bezala, egoiliar gehien parte hartu duen ospitalea **Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea** izan da. Inkestari erantzun dioten hamar egoiliarretik bi ospitale horretakoak dira.
- **Populazio osoaren datuak kontuan izanik**, ikus daiteke hartutako laginaren antzekoak direla. Esan daiteke lagina populazio osoaren datuen adierazpidea dela.

	Responde la encuesta	
	EN EL UNIVERSO	EN LA MUESTRA
HC	20,32%	19,68%
HUD	15,76%	15,42%
HB	13,68%	13,75%
UDMFyCB	11,59%	12,33%
HUA	10,83%	10,28%
UDMFyCG	7,41%	7,83%
HGU	6,46%	7,04%
UDMFyCA	5,98%	6,01%
UDEOG	3,61%	3,40%
RSMB	1,61%	1,50%
UDES	0,95%	0,87%
UDMT	0,66%	0,95%
IONC/FO	0,47%	0,40%
HSE	0,28%	0,24%
UDMPySP	0,28%	0,24%
UD GER FM	0,09%	0,08%
Total	100,00%	100,00%

2018. urtea

# Laginaren adierazgarritasuna

- Kontuan hartuta datuen haztapena, ospitale bakoitzaren garrantziaren arabera, ezin dezakegu ondorioztatu desberdintasunik dagoen faktoreen emaitzetan.
- Hau da, **ezin da zehaztu desberdintasunik dagoen** haztatu den eta haztatu ez den ospitale bakoitzeko emaitzen artean.


## POPULAZIO OSOAREN ETA LAGINAREN BANAKETAREN KONPARAZIOA, OSPITALEAREN ARABERA

	Tutor	Organización docente	Competencias complementarias	Competencias Interpersonales	Staff	Sesiones	Asistencia a cursos y congresos
Sin ponderar	4,18	3,63	3,29	3,92	3,99	3,92	3,80
Ponderado en función del centro	4,18	3,63	3,30	3,92	3,99	3,92	3,80
Diferencia	-0,01	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00



# Laginareen adierazgarritasuna

- Erantzun-maila, egoitza-aldiaren urtearen arabera



# Laginaren adierazgarritasuna

- Edonola ere, aurkitu diren desberdintasunak esanguratsuak diren ala ez zehazteko, doikuntzaren egokitasun-froga egin behar da, laginaren eta populazio osoaren banaketa alderatzen dituen. Proba horretan, hipotesi nuluak adieraziko luke lagina populazioaren adierazgarria dela.
- Probaren maila esanguragarritasun-muga baino baxuagoa da (0,05). Beraz, esan daiteke ez dagoela desberdintasun nabarmengarririk egoiliarren populazioaren eta hartutako laginaren artean.

**Egoitza-aldiaren urteari erreparatuta, ikusi da adierazgarritasuna dagoela hartutako laginaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko egoiliarren populazioaren artean.**

## DOIKUNTZAREN EGOKITASUN-FROGA (KHI-KARRATUA), EGOITZA-ALDIAREN URTEAREN ARABERA

	AÑO_DE_RESIDENCIA				
	N observado	N esperado	Residual		
Primer año	326	307,2	18,8	Chi-	15,3
Segundo año	250	260,5	-10,5	gl	4,0
Tercer año	206	213,9	-7,9	Sig. asintót.	,004
Cuarto año	228	223,1	4,9		
Quinto año	43	48,3	-5,3		

# Laginaren adierazgarritasuna

- Adierazgarritasuna espezialitatearen arabera azertu ondoren, ondoriozta daiteke, ospitaleekin gertatzen den bezala, **hartutako lagina populazioaren banaketaren adierazgarria dela.**

## POPULAZIO- ETA LAGIN-BANAKETAREN KONPARAZIOA, ESPEZIALITATEAREN ARABERA

	MUESTRA	UNIBERSO
MEDICINA FAMILIAR Y COMUNITARIA	23,4%	24,7%
PEDIATRÍA Y SUS ÁREAS ESPECÍFICAS	7,3%	7,0%
ANESTESIOLOGÍA Y REANIMACIÓN	5,8%	5,8%
PSIQUIATRÍA	3,7%	3,6%
ENFERMERÍA OBSTETRICO-GINECOLÓGICA	3,6%	3,4%
CIRUGÍA GENERAL Y DEL APARATO DIGESTIVO	3,4%	3,5%
CIRUGÍA ORTOPÉDICA Y TRAUMATOLOGÍA	3,4%	3,8%
MEDICINA INTERNA	3,4%	3,7%
OBSTETRICIA Y GINECOLOGÍA	3,0%	2,9%
RADIODIAGNÓSTICO	3,0%	2,8%
CARDIOLOGÍA	2,6%	2,6%
MEDICINA INTENSIVA	2,4%	2,2%
ONCOLOGÍA MÉDICA	2,4%	2,0%
APARATO DIGESTIVO	2,3%	2,5%
UROLOGÍA	2,0%	1,9%
OFTALMOLOGÍA	1,8%	2,1%
DERMATOLOGÍA MÉDICO-QUIRÚRGICA Y VENEREOLOGÍA	1,6%	1,3%
ENFERMERÍA FAMILIAR Y COMUNITARIA	1,6%	1,4%
NEUMOLOGÍA	1,6%	1,6%
ENFERMERÍA DE SALUD MENTAL	1,5%	1,3%
OTORRINOLARINGOLOGÍA	1,5%	1,4%
PSICOLOGÍA CLÍNICA	1,5%	1,5%
FARMACIA HOSPITALARIA	1,4%	1,3%
NEUROLOGÍA	1,4%	1,4%
HEMATOLOGÍA Y HEMOTERAPIA	1,3%	1,3%

	MUESTRA	UNIBERSO
ANATOMÍA PATOLÓGICA	1,2%	1,3%
ANÁLISIS CLÍNICOS	1,1%	1,1%
NEFROLOGÍA	1,0%	1,0%
ENDOCRINOLOGÍA Y NUTRICIÓN	0,9%	0,8%
MEDICINA FÍSICA Y REHABILITACIÓN	0,9%	1,1%
ONCOLOGÍA RADIOTERÁPICA	0,9%	0,8%
MICROBIOLOGÍA Y PARASITOLOGÍA	0,8%	0,6%
REUMATOLOGÍA	0,8%	0,6%
ANGIOLOGÍA Y CIRUGÍA VASCULAR	0,7%	0,6%
MEDICINA DEL TRABAJO	0,7%	0,9%
NEUROCIRUGÍA	0,7%	0,6%
CIRUGÍA PEDIÁTRICA	0,5%	0,4%
CIRUGÍA PLÁSTICA, ESTÉTICA Y REPARADORA	0,5%	0,8%
NEUROFISIOLOGÍA CLÍNICA	0,5%	0,4%
ALERGOLOGÍA	0,4%	0,3%
CIRUGÍA ORAL Y MAXILOFACIAL	0,4%	0,3%
MEDICINA NUCLEAR	0,4%	0,3%
MEDICINA PREVENTIVA Y SALUD PÚBLICA	0,3%	0,2%
CIRUGÍA CARDIOVASCULAR	0,2%	0,2%
CIRUGÍA TORÁCICA	0,2%	0,2%
ENFERMERÍA GERIÁTRICA	0,1%	0,1%
INMUNOLOGÍA	0,1%	0,1%
BIOQUÍMICA CLÍNICA	0,0%	0,0%
SERVICIO DE URGENCIAS	0,0%	0,0%

2018. urtea

---

# Lehenengo ondorioak

---

## LAGINAREN **ADIERAZGARRITASUNA**

-Ondorio baliagarriak atera daitezke? Bai. Populaziora egokitzen da.

## ESKALAREN **FIDAGARRITASUNA**

-Zehaztasunez neurtzen du? Bai. Gainera, inkestan sartu diren aldaketekin, fidagarritasuna areagotu da, urtez urte.

## ESKALAREN **BALIOZKOTASUNA**

-Neurtu behar duena neurtzen du? Bai, baina **ezusteko emaitzak** aurkitu ohi ditugu.

---

Inkesta, hasiera batean, egoiliarren gogobetetasun-maila neurtzeko diseinatu zen, hiru ardatzi dagokienez:

- 1.- Tutorea (6 galdera).
- 2.- Irakaskuntza-unitatea/zerbitzua edo osasun-zentroa (14 galdera).
- 3.- Familiari lotutako irakaskuntza-unitatea/ospitalea eta irakasteko gaitasuna (18 galdera).

Baliozkotasuna aztertzeko, osagarri nagusien **faktore-analisia** egiten da. Horren bidez, **7 faktoreko** emaitza lortzen da, bariantzaren % 65,45 azaltzen duena. Honako hauek dira:


# Faktoreen osaketa

---

- **Tutorea.** Tutore-lanarekin lotutako aldagaiak.
- **Irakaskuntzaren antolaketa.** Prestakuntza- eta ikerketa-eskaintzarekin lotutako aldagaiak.
- **Konpetentzia osagarriak.** Ikerketarekin, kudeaketarekin, informazioa erabiltzearekin eta ebidentzian oinarritutako medikuntzarekin lotutako aldagaiak.
- **Pertsonen arteko harremanetarako konpetentziak.** Profesionalen eta pazienteen arteko komunikazioarekin, balio profesionalekin eta etikoekin eta talde-lanarekin lotutako aldagaiak.
- **Staffa.** Ohiko lanaldietan eta guardietan zeharreko gainbegiratzearekin eta trebetasun klinikoak lortzeko staffak eskaintzen dituen erraztasunekin lotutako aldagaiak.
- **Saioak.** Saioekin lotutako aldagaiak (irakaskuntza-unitateko saio orokorrekin lotutakoak izan ezik).
- **Ikastaroetan eta kongresuetan parte hartzea.** Prestakuntza-jarduerak gauzatzeko eta programa betetzeko eskaintzen diren erraztasunekin lotutako aldagaiak.

# Pertsonen gogobetetasun-maila

- Aipatu den moduan, 7 ardatzen bidez labur daiteke nola sortzen den prestakuntza EAEn egiten duten pertsonen gogobetetasuna.
- Aztertu diren 7 faktoreez gain, txandaketak ere hartu behar dira kontuan, nahiz eta ez den etengabeko faktore bat; izan ere, ez dituzte denek egin, eta egin dituztenek, ez dute txandaketa kopuru bera egin.
- Eredu horrek erakusten du pertsonen gogobetetasuna faktore gako hauen ondorio dela: erantzukizun-eremua, eskuratu behar diren kompetentzia motak eta prestakuntza-ekintzaren motak.



# Pertsonen gogobetetasun-maila

- Egoiliarak 121. galderan erakutsi den **gogobetetasun-maila orokorraren** arabera **taldekatzen** baditugu (gogobetetasun aitortua), ikusten dugu **ia % 82a oso gogobeteta** dagoela jasotzen ari diren **prestakuntzarekin**, eta puntuazioa iazkoa baino apur bat altuagoa dela. Halaber, batere gogobeteta ez dauden pertsonen ehunekoak behera egin du, aurreko urteetako joerari eutsiz.


Urtea	Parte-hartzea (%)	BATERE GOGOBESETA EZ DAUDEN PERTSONAK 1+2 (%)		GOGOBESETA DAUDEN PERTSONAK 3+4+5 (%)		OSO GOGOBESETA DAUDEN PERTSONAK 4+5 (%)	
2018	% 83,24	25	% 2,37	1028	% 97,63	863	% 81,96
2017	% 80,87	26	% 2,59	976	% 97,41	812	% 81,04
2016	% 79,51	31	% 3,10	970	% 96,90	790	% 78,92
2015	% 78,15	36	% 3,54	980	% 96,46	787	% 77,46

2017. eta 2018. urteen arteko aldea = 2018ko lagina - 2017ko lagina



# Pertsonen gogobetetasun-maila

- Egoiliarren gogobetetasun-maila **hobetu egin da**, aztertu diren faktore guztietan. «**Konpetentzia osagarriak**» faktorea da egonkor mantendu den bakarra, eta «**Ikastaro eta eta kongresuetan parte hartzea**» faktoreak izan du aldaketarik handiena.
- Era berean, **gogobetetasun-maila**, bai **aitortua (G\_121)** bai **zenbatetsia (G\_2 eta G\_40 galderetako gogobetetasun-mailaren batezbestekoa)**, hobetu egin da, 2017. urtearekin alderatuta. Gogobetetasun aitortuak, halere, maila altuagoak ditu.




2017. eta 2018. urteen arteko aldea = 2018ko lagina - 2017ko lagina

# Pertsonen gogobetetasun-maila

- Irakaskuntza-unitate eta ospitaleetako gogobetetasun-mailaren batezbestekoa **arinki hobetu da, 2017ko datuekin alderatuta.**

Gogobetetasun-mailaren batezbestekoa (G\_121)



ALDEAK  
(2017-2018)


KONPARAZIOA  
(2017-2018)

2017. eta 2018. urteen arteko aldea = 2018ko lagina - 2017ko lagina

# Pertsonen gogobetetasun-maila

- 2017. urtean erregistratutako beherakadaren ostean, **hobetu egin da plan indibidualizatu bat daukatela dakiten egoiliarren kopurua**, nahiz eta 2015ean eta 2016an erregistratutako kopurua baino baxuagoa den (urte horietan lortu ziren maila altuenak).
- Edonola ere, 2018an erregistratutako datuek lehenengo urtean lortutakoak baino hobeak izaten jarraitzen dute; 11 portzentaje-puntu daude bi urte horien artean.

## Plan indibidualizatua dauka




# Pertsonen gogobetetasun-maila

Gogobetetasun-maila orokorra (G\_121), prestakuntza jasotzen ari den pertsonak prestakuntza-plan pertsonalizatua daukatela dakitenak eta ez dakitenak bereizita

Plan indibidualizatua dauka

- Plan indibidualizatua daukaten egoiliarrek plana ez daukaten egoiliarrek baino gogobeteago daude; hortaz, ondoriozta dezakegu plan indibidualizatuak zuzenean eragiten duela gogobetetasun-mailan.



# Pertsonen gogobetetasun-maila

- Egoiliarren **egoitza-aldiaren urtea kontuan hartuta**, ezin daiteke zehaztu horrek eragin esanguratsua duenik **gogobetetasun-maila aitortuan**.
- Era berean, eta aurreko urteetako joerari eutsiz, **bigarren eta hirugarren urteko egoiliarrek** dira gogobetetasun-maila **baxuenak** dituztenak; eta, **egoitza-aldiaren azken urtean, maila altuenak**. Dena dela, **ez dago desberdintasun esanguratsurik egoitza-aldiaren urteen artean**.

Gogobetetasun-maila, egoitza-aldiaren urtearen arabera



2018. urtea

# Pertsonen gogobetetasun-maila

- Egoiliarren % **83,2k** erantzun diote inkestari; 2017. urteko datuekin alderatuz gero, % 2,4 hazi da tasa.
- Halaber, **gogobetetasun-maila altua** erakusten dute, 1 eta 5 puntuko eskalan, 4 puntuko balorazioak ematen baitituzte.

## Gogobetetasun-maila orokorra (G\_121), espezialitatearen arabera

	Lagina	Unibertsoa	tasa Erantzun-	Gogobetetasun-maila orokorra (G_121)
ALERGOLOGIA	4	4	% 100,0	4,25
ANALISI KLINIKOAK	12	14	% 85,7	4,42
ANATOMIA PATOLOGIKOA	13	16	% 81,3	4,31
ANESTESIOLOGIA ETA BIZKORKETA	61	74	% 82,4	4,11
ANGIOLOGIA ETA KIRURGIA BASKULARRA	7	8	% 87,5	4,14
DIGESTIO-APARATUA	24	31	% 77,4	4,08
BIOKIMIKA KLINIKOA	0	0	% 0,0	.
KARDIOLOGIA	27	33	% 81,8	4,15
KIRURGIA KARDIOBASKULARRA	2	2	% 100,0	5,00
KIRURGIA OROKORRA ETA DIGESTIO-APARATUKOA	36	44	% 81,8	3,97
AHO ETA AURPEGI-MASAIETAKO KIRURGIA	4	4	% 100,0	4,25
KIRURGIA ORTOPEDIKOA ETA TRAUMATOLOGIA	36	48	% 75,0	4,08
KIRURGIA PEDIATRIKOA	5	5	% 100,0	4,20
KIRURGIA PLASTIKOA, ESTETIKOA ETA KONPONTZAILEA	5	10	% 50,0	3,40
BULARRALDEKO KIRURGIA	2	3	% 66,7	4,00
DERMATOLOGIA MEDIKU KIRURGIKOA ETA BENERELOGIA	17	17	% 100,0	4,53
ENDOKRINOLOGIA ETA NUTRIZIOA	9	10	% 90,0	4,44
OSASUN MENTALEKO ERIZAINITZA	16	17	% 94,1	4,19
FAMILIA ETA KOMUNITATEKO ERIZAINITZA	17	18	% 94,4	4,41
ERIZAINITZA GERIATRIKOA	1	1	% 100,0	1,00
OBSTETRIZIA ETA GINEKOLOGIAKO ERIZAINITZA	38	43	% 88,4	3,71
OSPITALEKO FARMAZIA	15	17	% 88,2	4,20
HEMATOLOGIA ETA HEMOTERAPIA	14	17	% 82,4	4,14
IMMUNOLOGIA	1	1		
LANEKO MEDIKUNTZA	7	12	% 58,3	3,86

	Lagina	Unibertsoa	tasa Erantzun-	Gogobetetasun-maila orokorra (G_121)
FAMILIA ETA KOMUNITATEKO MEDIKUNTZA	246	313	% 78,6	3,99
MEDIKUNTZA FISIKOA ETA ERREHABILITAZIOA	9	14	% 64,3	4,22
MEDIKUNTZA INTENSIBOA	25	28	% 89,3	3,96
BARNE-MEDIKUNTZA	36	47	% 76,6	3,89
MEDIKUNTZA NUKLEARRA	4	4	% 100,0	3,50
MEDIKUNTZA PREBENTIBOA ETA OSASUN PUBLIKOKO	3	3	% 100,0	2,33
MIKROBIOLOGIA ETA PARASITOLOGIA	8	8	% 100,0	4,25
NEFROLOGIA	11	13	% 84,6	3,73
PNEUMOLOGIA	17	20	% 85,0	4,53
NEUROKIRURGIA	7	7	% 100,0	4,43
NEUROFISIOLOGIA KLINIKOA	5	5	% 100,0	4,40
NEUROLOGIA	15	18	% 83,3	4,20
OBSTETRIZIA ETA GINEKOLOGIA	32	37	% 86,5	4,34
OFTALMOLOGIA	19	26	% 73,1	4,32
ONKOLOGIA MEDIKOA	25	25	% 100,0	4,12
ONKOLOGIA ERRADIOTERAPIKOA	9	10	% 90,0	3,89
OTORRINOLARINGOLOGIA	16	18	% 88,9	4,00
PEDIATRIA ETA ARLO ESPEZIFIKOAK	77	89	% 86,5	3,94
PSIKOLOGIA KLINIKOA	16	19	% 84,2	3,94
PSIKIATRIA	39	45	% 86,7	3,82
ERRADIODIAGNOSTIKOA	32	35	% 91,4	4,31
ERREUMATOLOGIA	8	8	% 100,0	3,88
UROLOGA	21	24	% 87,5	3,81
<b>Guztira</b>	<b>1053</b>	<b>1265</b>	<b>% 83,2</b>	<b>4,05</b>

# Pertsonen gogobetetasun-maila

---

- Aurreko urtetako joera izaten jarraituz, **egoiliarren gogobetetasun-maila prestakuntza-programaren betetze-mailarekin lotuta dago.**
- **Egoiliarren % 83k uste du betetze-maila altua edo oso altua dela. Aipatu beharra dago egoiliarren % 23k adierazi dutela betetze-maila oso altua izan dela.**
- Aldiz, **betetze-maila baxuenak dituztenek ematen dituzte gogobetetasun-maila txarrenak.**
- Ateratako emaitzen arabera, ondoriozta dezakegu egoiliarren **gogobetetasun-maila plan indibidualizatuak baldintzatzeaz gain, prestakuntzaren betetze-mailak ere eragina duela egoiliarren gogobetetasunean.**

# Pertsonen gogobetetasun-maila

## Faktoreen araberrako gogobetetasun-mailaren eta gogobetetasun-maila orokorraren arteko korrelazioa (G\_121)

Año 2018	SATISFACCIÓN CON EL FACTOR	CORRELACIÓN CON LA SATISFACCIÓN
SATISFACCIÓN GENERAL	4,05	1,000
Staff	3,99	0,602
Organización docente	3,63	0,589
Competencias interpersonales	3,92	0,552
Competencias complementarias	3,29	0,520
Tutor	4,18	0,479
Sesiones	3,92	0,444
Asistencia a cursos y congresos	3,80	0,429




# Pertsonen gogobetetasun-maila

HOBETZEKO LEHENTASUNAK

## GOGOBETETASUN-MAILA OROKORRA, «IRAKASKUNTZAREN ANTOLAKETA» FAKTOREAN

■ Año 2012 ■ Año 2013 ■ Año 2014 ■ Año 2015 ■ Año 2016 ■ Año 2017 ■ Año 2018




# Pertsonen gogobetetasun-maila

**BEREKO EZAUGARRIAK**

## GOGOBETETASUN-MAILA OROKORRA, «STAFF» FAKTOREAN


■ Año 2012 ■ Año 2013 ■ Año 2014 ■ Año 2015 ■ Año 2016 ■ Año 2017 ■ Año 2018



# Pertsonen gogobetetasun-maila

## EPE LUZERAKO HOBEKUNTZAK

### GOGOBEETETASUN-MAILA OROKORRA, «IKASTARO ETA KONGRESUETAN PARTE HARTZEA» FAKTOREAN




# Pertsonen gogobetetasun-maila

## EPE LUZERAKO HOBEKUNTZAK

### GOGO BETETASUN-MAILA OROKORRA, «KONPETENTZIA OSAGARRIAK» FAKTOREAN

■ Año 2012 ■ Año 2013 ■ Año 2014 ■ Año 2015 ■ Año 2016 ■ Año 2017 ■ Año 2018




# Pertsonen gogobetetasun-maila

BALIOA EMATEA

## GOGOBETETASUN-MAILA OROKORRA, «TUTOREA» FAKTOREAN

■ Año 2012 ■ Año 2013 ■ Año 2014 ■ Año 2015 ■ Año 2016 ■ Año 2017 ■ Año 2018




# Pertsonen gogobetetasun-maila

BALIOA EMATEA

## GOGO BETETASUN-MAILA OROKORRA, «PERTSONEN ARTEKO HARREMANETARAKO KONPETENTZIAK» FAKTOREAN

■ Año 2012 ■ Año 2013 ■ Año 2014 ■ Año 2015 ■ Año 2016 ■ Año 2017 ■ Año 2018




# Pertsonen gogobetetasun-maila

BALIOA EMATEA \*

## GOGOBTETASUN-MAILA OROKORRA, «SAIOAK» FAKTOREAN

■ Año 2012 ■ Año 2013 ■ Año 2014 ■ Año 2015 ■ Año 2016 ■ Año 2017 ■ Año 2018




# Inkestatu diren segmentuak, beren gogobetetasun-mailaren arabera

## 2017. URTEKO LAGINA

Final Cluster Centers (Puntuaciones medias en los 7 factores)

AÑO 2017	Cluster			
	Alta	Media alta	Media baja	Baja
Tutor/a	4,65	4,26	3,98	3,09
Competencias interpersonales	4,31	3,91	3,71	3,34
Competencias complementarias	3,97	3,24	3,04	2,46
Staff	4,48	3,91	3,82	3,16
Sesiones	4,38	3,85	3,76	3,16
Organización docente	4,22	3,58	3,41	2,79
Asistencia a cursos y congresos	4,57	2,61	4,19	2,47

Laginaren segmentazioa, bere gogobetetasun-mailaren arabera




## 2018. URTEKO LAGINA

Final Cluster Centers (Puntuaciones medias en los 7 factores)

AÑO 2018	Cluster			
	Alta	Media alta	Media baja	Baja
Tutor/a	4,40	4,00	3,61	2,93
Competencias interpersonales	4,07	3,68	3,52	3,31
Competencias complementarias	3,60	2,97	2,62	2,25
Staff	4,31	3,69	3,41	2,87
Sesiones	4,13	3,74	3,25	3,12
Organización docente	3,60	2,90	2,81	2,20
Asistencia a cursos y congresos	4,51	2,68	4,17	2,23

Laginaren segmentazioa, bere gogobetetasun-mailaren arabera





# Pertsonen gogobetetasun-mailari dagokionez

---

- Aurreko urteetan erregistratu zen joerari eutsiz, **7 faktorek zehazten dute** egoiliarren **gogobetetasun-maila**:
  - Tutorea
  - Irakaskuntzaren antolaketa
  - Konpetentzia osagarriak
  - Pertsonen arteko harremanetarako konpetentziak
  - Staffa
  - Saioak
  - Ikastaroetan eta kongresuetan parte hartzea
- Egoiliarrak **gogobeteta daude jaso duten prestakuntzarekin**; hain zuzen, beraien gogobetetasun-maila **4,05 puntukoa da, 5 puntuko eskalan**. Zifra hori **hobetu egin da, pixkanaka-pixkanaka**, azken urteetan.
- Halaber, gogobetetasun-maila orokorra hobetzeaz gain, **faktore bakoitzarekiko gogobetetasun-maila ere hobetu da**. 2017. urtearekin alderatuz gero, «Ikastaro eta kongresuetan parte hartzea» faktoreak du eboluziorik onena; «Konpetentzia osagarriak» faktoreak, aldiz, ez du aldaketarik izan.

## Inkestaren zeharkako azterketa deskriptiboa

- Egoiliar guztiei bidali zitzaien esteka bat, jaso zuten prestakuntzaren inguruko inkestara sar zitezten. Inkesta osatzen zuten galderak hiru ataletan banatuta zeuden, eta iruzkinak gehitzeko atal bat zuen, amaieran.
- Hainbat neurketa-eskala erabili dira: dikotomikoak, nominalak eta Likert eskala.
- Filiazio-aldagaiak bi izan daitezke: batetik, irakaskuntza-unitatea; eta, bestetik, ospitalea.
- Inkesta **anonimoa** da, eta datuak era **konfidentzian** tratatzen dira; ez ospitaleari ez irakaskuntza-unitateari ez zaie inoiz ematen inkesta betetzen duen pertsona identifika dezaketen emaitza bereizirik.
- Ez dago inolako interes-gatazkarik.

# ERANTZUN-TASA

- **Erantzun-tasa**, aurten, **% 83koa** izan da. EAeko 1.265 egoiliarretik, **1.053k** parte hartu dute inkestan.
- Online betetzen den inkesta izanik, **erantzun-tasa oso altua** izan da.
- Erantzun-tasa hori **iaz lortutakoa baino bi puntu altuagoa** da.
- Inkesta egin den urteetan zehar, **pixkanaka-pixkanaka areagotu da** erantzun-tasa.

## 2009-2018 urteetan zeharreko eboluzioa

- Urte horietan zehar, sakabanatze txikia ikusten da, aztertu diren faktore guztietan. Inkesta egin den urteetan gehien sakabanatu den faktorea «Irakasleen antolaketa» faktorea izan da.
- Inkesta egin zen lehen urtea alde batera utzita, faktore guztiek, oro har, hiru puntu baino gehiago izan dituzte, 1etik 5era bitarteko Likert eskalan (bat izango litzateke balorazio oso negatiboa, eta, bost, oso positiboa). Lehenengo urtean, «Irakasleen antolaketa» eta «Konpetentzia osagarriak» faktoreek balorazio baxuak izan zituzten, baina, urteak igaro ahala, hobetu egin dira.
- Joera izan da, urteetan zehar, apurka-apurka hobetu direla balorazioak. Ikusten da lehen urteetan hobekuntza handia izan zela, eta, gero, arinki hobetzen joan dela. Aurten, orain arte lortu diren balorazio onenak lortu dira, eta gero eta desberdintasun gutxiago dago aztertutako faktoreen artean.
- Oro har, urte batean puntuazio txarra duten itemak hobetu egiten dira hurrengo urtean. Horrek esan nahi du kontuan hartzen dugula egoiliarren iritzia.

## Laginaren homogeneousutasuna nabarmendu behar da:

- Egoiliarren urtekako banaketa berdintsua da.
- Homogeneousutasun handia dago aztertutako zazpi faktoreen artean.
- Balorazioak oso antzekoak izan dira espezialitate guztietan. Berezi, «Ikastaroetan eta kongresuetan parte hartzea» faktorean. Horrek adierazten du espezialitatea egiten den ospitalea edozein dela ere, jasotako prestakuntzarekiko gogobetetasun-maila oso antzekoa izango dela.
- Ospitaleei erreparatuta ere ikus dezakegu homogeneousutasun handia dagoela erantzunetan. Horrek adierazten du ospitaleko baliabideen banaketa zuzena dela irakaskuntza-unitate desberdinetan, ia faktore guztietan; hala ere, gero eta lagin handiagoa izan, gero eta homogeneousutasun handiagoa dago balorazioetan.
- Ikerketa-proiektuak garatzearekin lotutako alderdiak hobetzen jarraitzen dugu.

# Emaitzak interpretatzeari dagokionez

- Emaitzen arabera, ikus daiteke 2009. urtean lehen inkesta egin zenetik, parte-hartzearen maila urtero hazi dela. Hain zuzen ere, 2018an, erantzuntasua % 83,2koa izan da; 2017. urtearekin alderatuz gero, 2,4 puntu hazi da, eta, 2009. urtean erregistratutako datuekin alderatuta, 2,9 puntu.
- Halaber, esan daiteke bai ospitale mailan bai espezialitate bakoitzaren mailan, **hartutako lagina aztergai den populazioaren adierazpidea** dela.
- **2018an, hobetu egin da plan indibidualizatua dutela adierazi duten egoiliarren ehunekoa; % 88,4 izatera heldu da. Alegia, 2017an baino % 1,6 gehiago.**
- Aurreikusten zen bezala, **plan indibidualizatua dutela adierazten duten egoiliarrek gogobeteago daude jasotako prestakuntzarekin. Beraz, eta, aurreko urteetako joerari eutsiz, faktore erabakigarria da plana izatea, baita planaren betetze-maila ere.**

# Emaizak interpretatzeari dagokionez

---

- Aldiz, **txandaketek nahiz egoitza-aldiaren urteak ez dute eragin esanguratsurik gogobetetasun-mailan.** Hau da, gogobetetasun-maila antzekoa da egindako txandaketa kopurua eta egoitza-aldiaren urtea edozein direla ere.
- **Faktore guztiak hobetu dira;** eta, bereziki, «Ikastaro eta kongresuetan parte hartzea» faktorea. «Konpetentzia osagarriak» faktoreak ez du ia aldaketarik izan, **2017. urtearekin alderatuta.** Hori da hobetu egin daitekeelako estatistika eta ikerketan eskuratutako konpetentzien inguruko balorazioa. Hala ere, hobetu egin dira ikerketa-proiektuak garatzeko eskaintzen diren erraztasunak.
- Era berean, **«Tutorea» faktorea da gogobetetasun-maila altuena sortzen duena;** eta, **«Staff» faktorea,** aldiz, **gogobetetasun-mailan eragin handiena duena.**